



HIRUGARREN BEHIN BETIKO EBAZPENA, 2019ko martxoaren 25ekoa, Kudeaketa Ekonomikoaren zuzendariarena, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-laguntzetarako 2018-2019 ikasturteko deialdiaren zati bat ebazten duena.

Hezkuntza sailburuaren 2018ko irailaren 5eko Aginduaren bidez, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko 2018-2019 ikasturterako ikasketa-beka eta laguntzetarako deialdia egin zen.

Goian adierazitako deialdi-aginduaren 26. artikulua xedatu duenarekin bat etorritz, honako hau

**EBATZI DUT:**

Lehena.- Laguntzak ematea Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetan, I. eranskinean agertzen diren unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-mailetan diharduten ikasleei; hain zuzen ere, baldintzak betetzen dituztenei. Honen guztizko zenbatekoak 9.986.437,49€ jotzen du.

Bigarrena.- Laguntzak ukatzea II. eranskinean agertzen diren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetako unibertsitateaz kanpoko ikasleei, deialdian ezartzen diren baldintzak betetzen ez dituztelako.

Hirugarrena.- Hilabeteko epea irekitzea, ebazpena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesatuak prozedura-ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkezteko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari.

TERCERA RESOLUCIÓN DEFINITIVA de 25 de marzo de 2019 de la Directora de Gestión Económica por la que se resuelve parte de la Convocatoria de Ayudas al Estudio para la escolarización de alumnos de niveles no universitarios para el curso académico 2018-2019.

Por Orden de 5 de septiembre de 2018 de la Consejera de Educación, se convocaron becas y ayudas al estudio para la escolarización de estudiantes de niveles no universitarios para el curso académico 2018-2019.

De conformidad con lo establecido en el artículo 26 de la Orden de Convocatoria arriba indicada,

**RESUELVO:**

Primero.- Conceder ayudas al alumnado de niveles de enseñanza no universitaria de los territorios históricos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, relacionados en el anexo I, que cumple los requisitos recogidos en la Convocatoria, por un importe total de 9.986.437,49€.

Segundo.- Denegar las ayudas al alumnado de niveles de enseñanza no universitaria de los territorios históricos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, relacionados en el anexo II, ya que no cumplen los requisitos recogidos en la Convocatoria.

Tercero.- Abrir un plazo de un mes contando a partir del día siguiente al de la publicación en el tablón de anuncios de la sede electrónica, para que las personas interesadas presenten recurso de alzada ante la Viceconsejera de Administración y Servicios.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 25a

**KUDEAKETA EKONOMIKOAREN ZUZENDARIA**



HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

**AMAIA JAUREGIBERRI GOENAGA**